

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA

**Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 272/2023 Foru Agindua, apirilaren 24koa, honako eredu hau onestea: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazio ez-aldizkakoaren 309 eredu berria onartzen duena**

Foru agindu honen xedea da onestea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aldizkako ez den autolikidazioaren eredu berria, egokitzeko zerga tasen eta baliokidetasun errekaraguen arloko aldaketei, 309 eredu aurkezteko borondatezko epeari eta telematikoki aurkezteari.

Urtarrilaren 11ko 2/2013 Foru Aginduaren bidez, balio erantsiaren gaineko zergaren aldizkako ez den autolikidazioaren 309 eredu onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 2ko 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, irailaren 12ko 18/2022 Foru Arauak baliozkotuak, Arabako Lurralde Historikoko zerga araudiari egokitzen dizkio ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren aldaketak (zenbait neurri hartu eta luzatzen dituen Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhartearen susperraldi ekonomiko eta sozialerako).

Horrela, 2022ko uztailaren 1etik aurrera eta 2022ko abenduaren 31ra arte, 100eko 5eko tasa ezartzen da faktura elektrikoaren osagai guztien gainean energia elektrikoaren hornidura kontratuetarako, baldin eta 10 kW-etik beherako potentzia termino finkoa badute eta fakturazioaren aurreko hilean handizkako merkatuaren hileko batez besteko prezioa 45 €/MWh-tik gorakoa bada.

Energia elektrikoaren hornidura kontratuei ere 100eko 5eko tasa aplikatzen zaie, baldin eta horien titularrak bonu soziala jasotzen badute eta, gainera, kalteberatasun larria edo gizarte bazterkeriako arriskuan dagoen kalteberatasun larria aitortuta badute, handizkako merkatuko elektrizitatearen prezioa edozein dela ere.

Otsailaren 7ko 1/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak Arabako Lurralde Historikoko zerga araudiari egokitzen zaizkio irailaren 20ko 17/2022 Errege Lege Dekretuaren 5. eta 6. artikulua (energiaren arloko presako neurriak hartzen dituen kogenerazio instalazioei ordainsari araubidea aplikatzeko, eta aldi baterako murrizten duena Europar Batasunaren barruko erregai jakin batzuen entzegei, inportazioei eta erosketei aplikatu beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa), eta aldaketak sartzten ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga tasetan.

Horrela, 2022ko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2023ko abenduaren 31ra arteko indarrarekin, ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie gas natural, biomasatik datozen briketa eta egur entzegei, EB barruko erosketei eta inportazioei.

Otsailaren 14ko 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak abuztuaren 2ko 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren hirugarren artikulua aldatzen du, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak onetsitako aldaketak sartzeko (Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartea berreraikitzen laguntzeko eta beste egoera ahul batzuentzako neurriei buruzkoa).

Hala, 4. artikuluan, ehuneko 5eko zerga tasaren aplikazioaren indarraldia 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzen du.

Gainera, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2023ko ekainaren 30era arteko indarraldiarekin, ehuneko 0ra murrizten ditu elikadurako oinarrizko produktu jakin batzuk, orain arte ehuneko 4ko tasari atxikita zeudenak, bai eta ehuneko 5era ere elikadurako olioiei eta pastei aplikatu beharreko tasa, orain arte ehuneko 10eko tasari atxikita zeudenak. Aurrekoaren ondorioz, baliokidetasun errekaruaren tasa ere aldatu egin da indarraldian eta aplikatzean, ehuneko 0 eta ehuneko 0,62, hurrenez hurren.

Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 24ko 2/2023 Foru Dekretuak bateratu egiten du urte natural bakoitzeko urtarrilean epemugak dituzten autolikidazioak eta aldizkako aitortpenak aurkezteko eta ordaintzeko borondatezko epea.

Azkenik, aldatzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren azaroaren 20ko 603/2020 Foru Agindua, zeinak ezartzen baititu pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskaerak Interneten bidez aurkezteko baldintza orokorrak, 309 eredu sartuta nahitaez bide telematikoz aurkeztu behar diren autolikidazioen artean.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau,

#### XEDATZEN DUT

##### **1. artikulua. 309 eredu berria onestea**

Onesten da 309 eredu "Balio Erantsiaren Zergaren aldizkakoa ez den autolikidazioa" (foru agindu honen I. eranskina).

##### **2. artikulua. 309 eredu aurkeztu behar dutenak**

Eredu hori honela aurkeztuko da:

1. Ondoren adierazten diren pertsona eta entitateek, baldin eta Europar Batasunaren barruan ondasunak eskuratzen badituzte eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikatuta badaude haien Europar Batasunaren barruko erosketen bolumena urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 14. artikuluan ezarritako mugara iritsi delako edo artikuluko berean jasotako aukera baliatu dutelako:

a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari lotutako subjektu pasiboek, araubide horretan dagoen jarduera baterako ondasunak eskuratzeagatik Europar Batasunaren barruan.

b) Zerga osoaren edo horren zati baten kenkaria egiteko eskubidea sortzen ez duten eragiketak bakar-bakarrik egiten dituzten subjektu pasiboek.

c) Ez enpresaburu ez profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoek.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari atxikitako subjektu pasiboek, baldin eta beren jardueran Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun higiezinaren entregak egiten badituzte, eta zerga horren subjektu pasiboak badira, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 84. artikuluko bat apartatuko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera.

3. Enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoek, balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboak badira, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 84. artikuluko bat apartatuko 3. eta 4. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritik.

4. Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, baldin eta zergak baliokidetasun errekaruaren araubide berezian ordaintzen badituzte eta zerga hori eta Europar Batasunaren barruan ondasunak eskuratzeagatik ordaindu beharreko errekarua ordaindu behar badituzte, bai eta urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 84. artikuluko bat apartatuko 2. zenbakian eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 8. artikuluko 1. apartatuan jasotako kasuetan ere.

5. Enpresaburu edo profesional izaera ez duten eta Europar Batasunaren barruan garraio bide berriak kostu bidez eskuratzen dituzten pertsonak edo erakundeak.

6. Nahitaez betearazteko prozedura administratibo edo judizialean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren enpresaburu edo profesional diren esleipendunek, baldin eta ahalmena badute tributu horren subjektu pasiboaren izenean eta kontura dagokion autolikidazioa aurkezteko eta esleipen eragiketaren ondoriozko zerga ordaintzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera.

7. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari atxikitako subjektu pasiboek, baldin eta bidegabeki jasotako konpentsazioak itzuli behar badituzte, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziari atxikitako subjektu pasiboek, baldin eta araubide berezi hori aplikatzen hastearen ondorioz egindako erregularizazioak ordaintzen badituzte, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 49 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. Enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona eta erakundeek, bai eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauaren 20. eta 26. artikuluetan jasotako eragiketa salbuetsiak soilik egiten dituzten subjektu pasiboek ere, baldin eta Ogasun Publikoaren aldeko kreditu baten zordun badira, guztiz edo partzialki ordaindu gabeko eragiketen zerga oinarria aldatzearen ondorioz, 80. Bost artikuluen 5. puntuan xedatutakoaren arabera.

10. Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 91. Bi.1.4 artikuluan ezarritako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa murriztua aplikatzearen onuradunek, baldin eta Europar Batasunaren barruko ibilgailuak entregatzeko edo eskuratzeko eragiketetan, zergaren subjektu pasiboak ez badira eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 26 bis Bi 1.2 artikuluan ezarritako baldintza betetzen ez badute.

11. Era berean, 309 eredia aurkeztu beharko du zergaren subjektu pasiboa ez den beste edozein pertsonak edo entitatek, baldin eta zerga egoera erregularizatu behar badu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga onurak aplikatzeko eskatzen diren baldintzak ez betetzearen ondorioz, inportazioaren zerga egitateari aplikatzen zaizkionak alde batera utzita.

12. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, hala zehazten denean.

#### **4. artikulua. 309 eredia aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura**

309 eredia nahitaez bide telematikoz aurkeztu beharko da, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuan (Arabako Foru Ogasunean aitortpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzen dituena) eta azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduan (pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskabideak Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituena) xedatutakoarekin bat etorriz.

Ordaintzeko moduari dagokionez, helbideratuta edo ordainketa gutuna lortuta ordaindu ahalko da.

#### **5. artikulua. 309 eredia aurkezteko epealdia**

Apirileko, uztailako eta urriko lehenengo hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko dira autolikidazioa eta horren ondoriozko diru sarrera. Azken likidazio aldiari dagokiona hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu beharko da.

Aurrekotik salbuetsita daude Europar Batasunaren barruko garraibide berrien eskurapenei dagozkien autolikidazioak; kasu horretan, eredu hau aurkezteko epea hogeita hamar egunekoa izango da, eragiketa egiten denetik zenbatzen hasita, eta, nolana ere, garraibide horiek behin betiko matrikulatu aurretik. Ibilgailua matrikulatzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 13. artikuluko 2. zenbakian aipatutako garraibide berrien erosleei 309 eredu honen ondoriozko kuota likidatu eta ordaintzea eskatuko zaie.

Nahitaez betearazteko prozedura judizialak edo administratiboak badira, aurkezteko epea hilabetekoa izango da, esleipenaren zenbatekoa ordaintzen denetik kontatzen hasita.

## Xedapen indargabetzailea

Foru agindu hau indarrean sartzen denean, indarririk gabe geratuko dira bertan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

## Azken xedapenak

Lehenengoa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 603/2020 Foru Agindua, azaroaren 20koa, pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskabi-deak Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak ezartzen dituena.

Aldatzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren azaroaren 20ko 603/2020 Foru Agindua, zeinak ezartzen baititu pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskaerak Interneten bidez aurkezteko baldintza orokorrak, nahitaezkoa izan dadin 309 eredu bide telematikoz aurkeztea.

Honako hau sartzen da 1. artikuluan, bat apartatuan, "Autolikidazioak" azpiapartatuan:

309 eredu. "Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 309 eredu. Aldizkakoa ez den autolikidazioa."

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.


Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 10a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasunaren zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>Balio Erantsiaren Gaineko Zerga</b> <b>Impuesto sobre el Valor Añadido</b>	309
	<b>EZ-ALDIZKAKO AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTOLIQUIDACIÓN NO PERIÓDICA</b>	Página 1
<b>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila ■ Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</b>		
<b>SORTZAPENA ■ DEVENGO</b>		
<b>EKITALDIA ■ EJERCICIO</b> <input type="text"/>	<b>ZERGALDIA ■ PERÍODO</b> <input type="text"/>	<b>Ordezkoa</b> <input type="text"/> <b>Autolikidazioa zk.</b> <input type="text"/> Sustitutiva 901 N.º Autoliquidación 902
		<b>Epez kanpo eta errekerimendu bidez aurkeztua</b> <input type="text"/> Presentación fuera de plazo por requerimiento 930
<b>AITORZAILA ■ DECLARANTE</b>		
<b>IFZ ■ NIF</b> <input type="text"/> <b>Deiturak eta izena edo sozietatearen izena ■ Apellidos y nombre o razón social</b> <input type="text"/>		
100 <b>Helbidea elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>	101 <b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>	
103 <b>Harremanetarako pertsona ■ Persona de contacto</b> <input type="text"/>		
<b>ESKUALDATZAILA ■ TRANSMITENTE</b>		
<b>IFZ ■ NIF</b> <input type="text"/> <b>Deiturak eta izena edo sozietatearen izena ■ Apellidos y nombre o razón social</b> <input type="text"/>		
104 <b>Helbidea (kalea edo enparantza) ■ Domicilio (calle o plaza)</b> <input type="text"/>	107 <b>Herria ■ País</b> <input type="text"/>	
<b>TRIBUTU EGOERA ■ SITUACIÓN TRIBUTARIA</b>		
<b>1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Erregimen bereziaren babespeko subjeto pasiboa</b> Sujeto pasivo acogido al Régimen especial de Agricultura, Ganadería y Pesca		C1
<b>2. Baliakidetasun Errekaruaren Erregimen bereziaren babespeko subjeto pasiboa</b> Sujeto pasivo acogido al Régimen especial de Recargo de Equivalencia		C2
<b>3. Kentzeko eskubiderik gabeko subjeto pasiboa (14 art. BAT ZBEZaren FA)</b> Sujeto pasivo sin derecho a deducción (Art.º 14 UNO 2º NFIVA)		C3
<b>4. Enpresari edo profesionari ez den erakundea</b> Persona jurídica no empresario o profesional		C4
<b>5. Enpresari edo profesionari ez den pertsona fisikoa</b> Persona física no empresario o profesional		C5
<b>6. Aurrekoetan sartuta ez dauden gainerako egoerak</b> Otras situaciones tributarias no contempladas anteriormente		C6
<b>ZERGA EGITATEA ■ HECHO IMPONIBLE</b>		
<b>11. Ondasunen elkartearteko erosketak</b> Adquisición intracomunitaria de bienes		C11
<b>12. Garraio-bide berrien elkartearteko erosketak</b> Adquisición intracomunitaria de medios de transporte nuevos		C12
<b>13. Subjeto pasibo inbertsioa</b> Inversión sujeto pasivo		C13
<b>14. Higiezin-alorreko inbertsio ondasunen ematea</b> Entregas de bienes de inversión de naturaleza inmobiliaria		C14
<b>15. Nahitaezko betearazpenetako administrazio eta lege prozeduretan eman beharreko ondasunak eta eskaini beharreko zerbitzuak</b> Entregas de bienes y prestaciones de servicios en procedimientos administrativos y judiciales de ejecución forzosa		C15
<b>16. Aurrekoetan sartuta ez dauden gainerako egoerak</b> Otros supuestos no contemplados anteriormente		C16
<b>Eragiketa data ■ Fecha operación</b> <input type="text"/> 90 <input type="text"/>		
<b>EZAUGARRIAK ETA DATU TEKNIKOAK ■ CARACTERÍSTICAS Y DATOS TÉCNICOS</b>		
<b>IBILGAILUAK ■ VEHÍCULOS</b>		
<b>Marka ■ Marca</b> <input type="text"/> 110	<b>Mota ■ Tipo</b> <input type="text"/> 111	<b>Eredua (merkataritza izena) ■ Modelo (denominación comercial)</b> <input type="text"/> 112
<b>Identifikazio zk.a (armazoa) ■ N.º Identificación (bastidor)</b> <input type="text"/> 113		<b>Sailkapena ■ Clasificación</b> <input type="text"/> 114
<b>ITSASONTZIAK ■ BARCOS</b>		
<b>Fabrikaria ■ Fabricante</b> <input type="text"/> 120		<b>Marka - Mota - Eredua ■ Marca - Tipo - Modelo</b> <input type="text"/> 121
<b>Identifikazio (Ontzigitza zk.a) ■ Identificación (N.º de construcción)</b> <input type="text"/> 122		<b>Luzera handiena ■ Eslora máxima</b> <input type="text"/> 123
<b>HEGAZKINAK ■ AERONAVES</b>		
<b>Fabrikaria ■ Fabricante</b> <input type="text"/> 130		<b>Marka - Mota - Eredua ■ Marca - Tipo - Modelo</b> <input type="text"/> 131
<b>Serie zk.a ■ N.º de serie</b> <input type="text"/> 132	<b>Gintza urtea ■ Año fabricación</b> <input type="text"/> 133	<b>Igotze pisu handiena (kg tan) ■ Peso máx. despegue (en kilos)</b> <input type="text"/> 134

RE: 22/202

**AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTOLIQUIDACIÓN**

	ZERGA OINARRIA ■ BASE IMPONIBLE		TASA ■ TIPO		KUOTA ■ CUOTA	
<b>Erregimen Orokorra</b> Régimen General	36		37	4%	38	
	40		41	5%	42	
	233		234	10%	235	
	230		231	21%	232	
<b>Errg. Orokorreko oinarri eta kuotena aldaketa</b> Modificación bases y cuotas Régimen General	370				371	
<b>Baliokidetzaren Errekargua</b> Recargo Equivalencia	45		46	0,5%	47	
	242		243	1,4%	244	
	80		81	1,75%	82	
	239		240	5,2%	241	
<b>G. Baliokidetasun oinarri eta kuotena aldaketa</b> Modificación bases y cuotas Régimen Equivalencia	374				375	
<b>Zorpidetutako zorra guztira</b> Total cuota devengada					50	
<b>Errekargua, epea kanpo aurkeztu izanagatik</b> Recargo presentación extemporánea					61	
<b>Berandutza interesak</b> Intereses demora					62	
<b>Kentzekoa (autoliquidazio osagarria egitekotan)</b> A deducir (exclusivamente en el caso de autoliquidación sustitutiva)					63	
<b>ZERGA ZORRA GUZTIRA ■ TOTAL DEUDATRIBUTARIA</b>					55	